

Uxue Perez Mujika

A maila • 1 saria

Ni, Uxue. 17 urte. Literatura, mendia, lagunak, zinema, umorea, parranda... ditut maite. Beasaindarra. Kolore gustokoena, berdea. Idaztera bultzatzen nauena? Orri zuria eta arkatza. Zuria beldurrez, istorioz, zaporez estaltzen dudana gustoko izango duzuelakoan...

Mila esker,
Uxue



GANBARAK

Beldur naiz ganbara hutsez;

bertako argia ostondu duten ilun,
oroimenak zulatzen dabiltzan sitsez.

Beldur naiz
oinarriak zimeltzen dabiltzan umelez;
ezerabilerak josiriko
hauts eta amaraunez.
Beldur.

Ganbaran naiz.

Oroitzen ditut bertan
amaren usaina,
aitaren esku latzak,
masusten gozoa,
udaberriko eguzki epela,
haizearen ferekak...

Beldur naiz ganbara hutsez,
zoruan dauden arrakalak sustraien pare zabaltzeaz,
zapaltzen dudana lurra hauskor sentitzeaz,
pauso bakoitzean ezdeus.

Hauskor sentitzeaz
beldur.

Oroitzen ditut baina
amaren usaina,
aitaren esku latzak,
masusten gozoa,
udaberriko eguzki epela,
haizearen ferekak...

Beldur naiz
ganbarako ohiartzun urrunaz;
desertu hutsek dakarten dementziaz.
begira dauzkadan begiak ezezagun izateaz
beldur.

Ganbaran bila.

Ganbara hutsik.

Soilik
amaren usaina,
aitaren esku latzak,
masusten gozoa,
udaberriko eguzki epela,
haizearen ferekak.

Beldur naiz ganbara hutsez.